



8. ATALA: JARDUERAK

Funtsezko jardueren barruan, gure enpresan nagusitzen direnak plataforma eta sareko jarduerak dira dudarik gabe, gure aplikazioari esker nekazarien eta familien arteko komunikazioaren oinarria lortzen dugulako. Arazo-konpontzeko jarduerak ere gehitu ditzakegu, nahiz eta neurri txikiagoan, bi sektore hauen arteko komunikazio kanalarekin arazo bat konpontzea lortzen dugulako.

Lehenik eta behin, aplikazioaren arazo teknikoak saihesteko, mantentze-lanak astero egingo dira, izan ere, aplikazioaren edozein arazo edo kolapso saihesten saiatuko gara. Horretaz gain, gure webgunea ere eskuragarri izango dugu, aplikazioaren mantentze-lan bera izan dezan programatuta egongo dena, arazoak ekiditeko. Bezeroren bat produktuarekin edo jasotako zerbitzuarekin pozik ez badago, sareko erreklamazio orri bat egongo da eskuragarri bai aplikazioan, bai webgunean, zuzenean helduko zaiguna eta arazoa ahalik eta erraztasun handiagorekin konpontzen saiatuko gara. Bezeroak erantzun zuzena nahiago badu, telefonoz erantzun diezaioke gure bezeroarentzako arreta eskuragarri dagoen bitartean.

Adineko nekazariei zuzendutako negozioa izan arren, sare sozialen erabilera ezinbestekoa izango da gure enpresan, egiten duguna iragartzeko metodo ona baita beti eta jende gehiagorengana eta bezero potentzial gehiagorengana iristea errazten digulako. Instagram edo Twitter bezalako sare sozialak erabiltzeak teknologiaren bidez bezero gehiagorengana heltzea erraztuko digu. Kontuan hartzen dugu egunero jendeak denbora gehiago pasatzen duela sakelako telefonoan eta horregatik, Interneten publizitatea egitea garrantzitsua da.

Informatikan espezializatutako norbait kontratatuko dugu gure webgunea sortu eta kudeatzeko. Iritsi diren aldaketa, eguneratze, produktu berri horiek guztiak unean bertan jakinaraziko zaizkio bezeroari. Pertsona hau gure orrialdean aldaketak programatzeaz arduratuko da eta gure bezeroen kexa eta erreklamazioei erantzutea ere arduratuko da, beraz, gure "modus operandi"ren berri emango zaie.

Marketin arloan oso argi izan nahi dugu eta guretzat garrantzitsua da edozein modutan gure burua iragartzea, betiere enpresari eta bere balioei mesede egiten badio. Publizitatea egiteko, iragarkiak erabiliko ditugu metodo nagusi gisa, denetan sinpleena izanik, ez da konplikatu izango publizitate estrategia hori argitaratu behar dugunean. Baina, batez ere, "influencer"ekin egindako kolaborazioak ere bideratuko ditugu. Badakigu gaur egun eduki-sortzaile guzti horiek milaka eta milaka jarraitzaile daramatzatela bizkarrean, beraz, "influencer" edo eduki sortzaileekin kolaborazio batek konpainiaren ospea areagotuko du. Azkenik, gehitu publizitate-estrategia guzti hauek gure lan egiteko modua ezagutarazteaz gain, eduki horietara sarbidea izan dezaketen pertsona guztiei ezagutarazi nahi dizkiegun balioak ezagutzera eman nahi ditugula.